


## Plaketek bideratu dezakete minbizi-zelulen kontrako immunoterapia

Tumore bat kendu ondoren tumore berriak haz ez daitezzen, estrategia berri bat proposatu dute Estatu Batuetan, plaketak dituen protagonista. Plaketek zaurietan odola koagulatzen laguntzen duten heinean, zauri-guneetarantz jozteko joera dute; hori aprobetxatuz, tumore bat kirurgia bidez kendu eta gero, hor gera daitezkeen minbizi-zelulen aurkako antigorputzak eramateko balio lezakete. Ez hori bakarrik, plaketak odolean dabiltzanez, odolera pasatu diren eta metastasia eragin dezaketen minbizi-zelulak ere ezagut ditzakete.



ARG.: PIXABAY

Ipar Carolinako Unibertsitateko iker-tzaileei bururatu zaie estrategia berria, eta ikusi dute eraginkorra dela saguetan, behintzat. Saguei plaketak erauzi, plaketan mintzean antigorputzak erantsi, eta berriz ere saguei sartu dizkiete odolean. Plaketok, tumore kendu berriaren kirurgia-gunera joan eta antigorputzak askatu dituzte, eta, ondorioz, gorputzaren erantzun immunea hobetzea lortu dute: minbiziaren berragerpena murriztu egin da nabarmen. Immunoterapiaren zailtasun handienetakoa ebatzi nahi izan dute horrela: antigorputzak toki egokira bideratzea eta zabaltzen ari diren minbizi-zelula higikorretara iristea. Iker-tzaileek argitu dute oraingoz saguetan baino ez direla egin probak, eta ikusi beharko dela zer emaitza ematen duten gizakietan. ●

## Katu-begia nebulosak Eguzkiaren etorkizuna iragar dezake

Katu-begia ageri da argazkian —NGC 6543 deritzon planeta-nebulosa—, Lurretik hiru mila argi-urtera. Eguzkiaren antzeko izarren bizitzaren azken faseak dira planeta-nebulosak; hortaz, izar horren heriotzaren fasea irudikatzen du Hubble teleskopioak hartutako argazkiak. Hubblek ematen duen informazioa baliagarria da Katu-begiaren nebulosaren eboluzioa ezagutzeko, eta, ondorioz, lagungarria izan daiteke gure Eguzkiaren etorkizuna aurreikusteko. Izan ere, Eguzkiak ere eboluzio lainotsua izango du, bost mila milioi urte barru edo. ●



Katu-begia nebulosa Hubbletik. ARG.: NASA, ESA, HUBBLE, HLA; BIRPROZESATZEA ETA COPYRIGHTA RAÚL VILLAVERDE.

## Mutazioak saihesteko mekanismo berri bat aurkitu dute

Ikerketa baten arabera, zenbait mikroorganismok orain arte ezezaguna zen sistema bat erabiltzen dute material genetikoko akatsak detektatu eta zuzentzeko. Mekanismo horri esker, bakterio patogeno batzuek antibiotikoekiko erresistentziak saihesten dituzte; tuberkulosiaren erantzule den *Mycobacterium tuberculosis* bakterioak, besteak beste.

Aurkikuntza garrantzitsua da, batetik, antibiotikoekiko erresistentziari aurre egiteko estrategiak garatzeko balio dezakeelako, eta, bestetik, prozesu bioteknologikoen emaitzak hobetu ditzakeelako. [Nature Communications aldizkarian argitaratu da ikerketa.](#) ●



DNA molekula. ARG. CREATIVE COMMONS